

The image features a solid orange background with several black lines of varying thicknesses. These lines intersect to form various geometric shapes, including triangles and quadrilaterals. The lines are positioned in a way that creates a sense of depth and movement. The text is placed in the right half of the image, with the top section containing three lines of text in Basque, Spanish, and English, and the bottom section containing three lines of text in Basque, Spanish, and English.

**BIZIGARRIAK
ESTIMULANTES
STIMULANTS**

**ZIRKULAZIOA ETA
EUFORIA**

**CIRCULACIÓN Y
EUFORIA**

**CIRCULATION AND
EUPHORIA**

Bizigarriei buruzko hausnarketek kultura eta pentsamendua arakatzeko ezusteko angeluak eskaintzeko dohaina daukate. Azterketa mikroskopikoak jarduera eta kontenplazioari egiten die lekua, eguneko eginkizunak eta gaueko ametsak biltzen dituen ikuspegi panoramikoa zabaltzen zaigularik. Ikuslea eragiketatik kanpo uzteko joera duten dinamikan ez bezala, bizigarriek geure «kasuarekin» eztabaidatzera gonbidatzen gaituzte, lehenik eta behin, eta fantasia, grina eta ideologia banaezinak direneko nozioez gainezka ageri zaigu haien azterketa. Bestalde, beren kontsumo eta banaketa ibilbideek marrazten duten ekintza esparrua, planeta osora hedatzen den nerbio sistema baten gisa ageri zaigu. Gizarte-zientzietatik datozen jakintzek oinarrian izan dituzten barrukoa/kanpokoa, subjektibo/objektiboa, ekonomiko/biologikoa gisako banaketen etena dakarten faktoreak direla esan daiteke. Kultura eta pentsamendu arrazionala ulertzeko daukagun moduak mozkoraren eta euforiaren aurkakoak dira gehienetan, baina nola ukatu gaur egungo garaia taxutu duten prozesu historikoetan bizigarriek izan duten zeregina?

Gure planeta globalizatuaren errealitate konplexua xehatzen saiatzea da programa honen helburua, «gure garaiko bizigarriak» aztergai hartzen dituen proiektu baten bidez. Ozeano Atlantikoan zeharreko ibilbide komertzial handiak zabalduz geroztik, tabakoa, kafea, azukrea eta kakaoa bezalako merkantziek leku gailena hartu dute gure gizarteetan. Produktu horien

konkistak giza gorputza bizkortzeko eta bizigarrien olgetarako erabileratik sortutako aisialdi-gune berriak eratzeko aukera dakar aldi berean. Horrenbestez, gure garaiko bizigarrien azterketaren bidez erpin asko erlazionatzen dituen sare bat osatuko dugu: exotikoa denaren bilaketa eta elikadura, lan industrialaren sorrera eta natur baliabideen esplotazioa, kolonialismoa eta sentsibilitateari buruzko teoria berrien agerpena mundu modernoan.

Gurera etorrita, Caracasko Gipuzkoar Errege Konpainiak izan zuen garrantzi historikoa nabarmentzen da, euskal ilustrazioari lotutako ekimen hark pisu handia izan baitzuen merkantzien nazioarteko zirkulazioan. Konpainia haren aztarna ugari aurkitzen ditugu Donostiako eta Gipuzkoako zenbait eraikuntza enblematikotan: Santa Maria elizan, Pasaiako portuko azpiegituren modernizazioan eta Soraluze eta Eibarko armategien eraikuntzan, esate baterako. Hiriko tabako fabrika zaharraren eraikuntza, Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentro bihurtua gaur egun, konpainiak XVIII. mendean hasitako Ozeano Atlantikoan zeharreko ibilbide haien testuinguruan kokatzen da.

Baina fenomeno hauek sentsibilitate kritiko batek aztertu nahi izateak, ohiko azterketa sozial eta historikoak alde batera uztea eskatzen du. Hori dela eta, proiektu honek proposatzen duen helburua ez da material eta prozeduren edukiontzi handi bat izatera mugatzen. Ikuspegi jarraitu baten moduan eta jen-

deari zabaldutako proposamenen bidez, muntaia baten itxura hartzen joango da ekimen hau, denboraren zuloetan eta zeinuen materialtasunean barrentzeko eta irudiek duten boterea, banakako eta taldeko oromena egituratzeko duten ahalmena hobeto ulertzeko makina baten itxura, alegia. Proiektuak aurrera egin ahala, kultur erregistrotzat eta pentsamenduko zoko arakatu gabeetarako sarbidetzat hartutako bizigarriak mosaiko bat osatzen joango dira, era askotako jakintza eta gustuen, interes eta gurarien arteko ukiguneak agerian utziz.

Bizigarriak: zirkulazioa eta euforia egitasmoaren bidez gai hauek eta beste batzuk plazaratuko dira, 2017. urte amaierara arte luzatuko diren zenbait programaren bidez. Hitzaldi, eztabaida publiko, mintegi, erakusketa-saiakera, kontzertu eta argitalpenez lagunduta egongo dira programa horiek.

Oier Etxeberria

Tabakalerako Proiektu Artistikoen arduraduna

Las reflexiones sobre los estimulantes tienen la virtud de facilitar ángulos insospechados para la exploración de la cultura y el pensamiento. El examen microscópico da paso a una visión panorámica abarcando tanto la actividad como la contemplación, las funciones diurnas y la ensoñación nocturna. Al contrario de aquellas dinámicas en las que el observador suele quedar excluido, los estimulantes nos invitan en primer lugar a una discusión con nuestro propio "caso", su estudio aparece repleto de nociones en las que lo fantástico y lo pasional se confunden con lo ideológico, mientras que el campo de acción que dibujan sus recorridos –distribución, consumo– acaba por extender sus nervios por toda la superficie del planeta. Podemos pensar que son factores que dejan en suspenso las divisiones dentro/fuera, subjetivo/objetivo, económico/biológico en las que se han fundamentado –en gran medida– los saberes provenientes de las ciencias sociales. Nuestros modos de entender la cultura y el pensamiento racional son por norma contrarios a la embriaguez y a la euforia, pero ¿cómo negar el papel que han jugado los estimulantes en los procesos históricos que han determinado el tiempo presente?

Este programa es un intento por desmenuzar la compleja realidad de un planeta globalizado a través de un proyecto que tiene en los "estimulantes modernos" su objeto de estudio. Mercancías como el tabaco, el café, el azúcar o el cacao, que han terminado por

ocupar un lugar preponderante en nuestras sociedades a partir del despliegue de las grandes rutas comerciales transatlánticas. La conquista de estos productos supone tanto la posibilidad de acelerar el organismo humano –potenciando la fuerza de trabajo–, como de generar nuevos espacios de ocio derivados de sus usos recreativos. De este modo, el estudio de los estimulantes modernos nos permite tejer una trama en la que se relacionan la búsqueda de lo exótico y la dieta alimenticia, el surgimiento del trabajo industrial y la explotación de los recursos naturales, o el colonialismo y el nacimiento de nuevas teorías sobre la sensibilidad en el mundo moderno.

En el contexto local, destaca la relevancia histórica adquirida por la Real Compañía Guipuzcoana de Caracas, una iniciativa vinculada a la Ilustración vasca que llegó a ocupar un lugar muy destacado en la circulación internacional de mercancías. Su rastro y su memoria perviven en el urbanismo de la ciudad de San Sebastián y de Gipuzkoa a través de la construcción de edificios emblemáticos como la Iglesia de Santa María, la modernización de infraestructuras como el puerto de Pasaia o la puesta en marcha de las armerías de Sorluze y Eibar. La construcción de esta anti-guía fábrica de tabacos, ahora remodelada en Centro Internacional de Cultura Contemporánea, se enmarca también en el contexto de estas rutas transatlánticas iniciadas por la compañía comercial en el siglo XVIII.

Pero confrontar esta revolución desde una sensibilidad crítica significa también desprenderse del hechizo de los análisis históricos y sociales al uso. Por lo tanto, la misión que propone el proyecto no se agota en ser un gran contenedor de materiales y procedimientos. A modo de una visión continuada, esta iniciativa irá tomando forma de un ensamblaje, una máquina que nos permita acceder a los agujeros en el tiempo, a la materialidad de los signos y a una mejor comprensión del poder de las imágenes y de su capacidad para estructurar la memoria individual y colectiva. Según el proyecto se desarrolle, los estimulantes entendidos como registros culturales y como vías de acceso a zonas inexploradas del pensamiento, irán conformando un mosaico que hará visibles zonas de contacto entre saberes y sabores, intereses y deseos dispares.

Estimulantes: circulación y euforia lanzará al espacio público estas y otras cuestiones a través de distintos programas que se prolongarán hasta finales del 2017, y que incluyen conferencias, discusiones públicas, seminarios, ensayos expositivos, conciertos y publicaciones.

Oier Etxeberria

Responsable de Proyectos artísticos de Tabakalera

Reflections on stimulants have the virtue of providing unexpected angles for the exploration of culture and thought. Microscopic examination leads to a panoramic view encompassing both activity and contemplation, daytime functions and night dreams. Unlike those dynamics in which the observer is normally excluded, stimulants invite us first to a discussion with our own "case", its study is full of notions in which the fantastic and passionate fuse with ideology while the field of action that outlines their maps (distribution, consumption) extends its nerves over the entire surface of the planet. We may think they are factors that suspend the divisions of inside/outside, subjective/objective, economic/biological on which knowledge from the social sciences has (largely) been based. Our ways of understanding culture and rational thought are as a rule contrary to exaltation and euphoria, but how can we deny the role played by stimulants in historical processes that have determined the present?

This programme is an attempt to break down the complex reality of a globalised planet through a project that studies "modern stimulants". Goods such as tobacco, coffee, sugar and cocoa, which have come to occupy a prominent place in our societies since the deployment of long-distance transatlantic trade routes. The conquest of these products leads to both the possibility of accelerating the human body (increasing the labour force) and generating new leisure

derived from its recreational uses. Thus, the study of modern stimulants allows us to weave a plot in which the search for the exotic and food diets is related to the rise of industrial labour and the exploitation of natural resources, or colonialism and the birth of new theories of awareness in the modern world.

In the local context, it highlights the historical significance acquired by the Real Compañía Guipuzcoana de Caracas, an initiative linked to the Basque Enlightenment that came to occupy a prominent place in the international movement of goods. Its trail and memory live on in the planning of the city of San Sebastián and Gipuzkoa through the construction of buildings such as the Church of Santa María, the modernisation of infrastructure such as the port of Pasaia and the commissioning of the armouries of Sorluze and Eibar. The construction of the former tobacco factory in the city, now remodelled as the International Centre for Contemporary Culture, is also part of the context of these transatlantic routes started up by the trading company in the eighteenth century.

But confronting these phenomena from critical awareness also means detaching oneself from the spells of usual historical and social analyses. Therefore, the mission proposed by the project is not just a large container of materials and procedures. By way of a continued vision and through various proposals open to the public, this initiative will take the shape

of an assembly, a machine that allows us to access the holes in time, the materiality of signs and a better understanding of the power of images and their ability to structure the individual and collective memory. As the project develops, stimulants understood as cultural records and as gateways to unexplored areas of thought will form a mosaic that will reveal contact zones between knowledge and tastes, interests and different desires.

Stimulants: circulation and euphoria will launch into the public space these and other issues through various programmes that will run until the end of 2017 and will include talks, public debates, seminars, exhibitions, concerts and publications.

Oier Etxeberria
Head of Artistic Projects at Tabakalera

APIRILA ABRIL APRIL

14

KORAPILOAK | NUDOS | KNOTS ~ 89

21-22

CAFÉ COMLOT ~ 35

28

KEAREN POLITIKAK | POLÍTICAS DEL HUMO | SMOKE
POLICIES ~ 13

MAIATZA MAYO MAY

12

KORAPILOAK | NUDOS | KNOTS ~ 89

26

KEAREN POLITIKAK | POLÍTICAS DEL HUMO | SMOKE
POLICIES ~ 13

28

NONDIK DATOR ZURE GOSARIA? | ¿DE DÓNDE VIENE TU DE-
SAYUNO? | WHERE DOES YOUR BREAKFAST COME FROM? - 97

EKAINA JUNIO JUNE

9

KORAPILOAK | NUDOS | KNOTS ~ 89

11

NONDIK DATOR ZURE GOSARIA? | ¿DE DÓNDE VIENE TU DE-
SAYUNO? | WHERE DOES YOUR BREAKFAST COME FROM? - 97

15-17

BIZIGARRIAK, KOLONIALISMOA ETA EKUATORE GINEAREN
ETA EUSKAL HERRIAREN ARTEKO IBILBIDEEN GURUTZAKETA
| ESTIMULANTES, COLONIALISMO Y CRUCE DE ITINERARIOS
ENTRE GUINEA ECUATORIAL Y EL PAÍS VASCO | STIMULANTS,
COLONIALISM AND THE INTERSECTION OF ROUTES BETWEEN
EQUATORIAL GUINEA AND THE BASQUE COUNTRY ~ 51

30

KEAREN POLITIKAK | POLÍTICAS DEL HUMO | SMOKE
POLICIES ~ 13

UZTAILA JULIO JULY

6-7

EZORDUAN | DESTIEMPO | OUT OF SYNC ~ 103

IRAILA SEPTIEMBRE SEPTEMBER

28-30 / 1 UR.-OCT.

HIRU ZIRKULAZIOAK: SUBTANTZIA AKTIBOA | LAS
TRES CIRCULACIONES: SUSTANCIA ACTIVA | THE THREE
CIRCULATIONS: ACTIVE SUBSTANCE ~ 75

URRIA OCTUBRE OCTOBER

27

KEAREN POLITIKAK | POLÍTICAS DEL HUMO | SMOKE
POLICIES ~ 13

AZAROA NOVIEMBRE NOVEMBER

17-19

EZORDUAN | DESTIEMPO | OUT OF SYNC ~ 103

24

KEAREN POLITIKAK | POLÍTICAS DEL HUMO | SMOKE
POLICIES ~ 13


ABENDUA DICIEMBRE DECEMBER

NONDIK DATOR ZURE GOSARIA? | ¿DE DÓNDE VIENE TU DE-
SAYUNO? | WHERE DOES YOUR BREAKFAST COME FROM? ~ 97

2017 ERAKUSKETA | EXPOSICIÓN | EXHIBITION

HIRU ZIRKULAZIOAK: SUBTANTZIA AKTIBOA | LAS
TRES CIRCULACIONES: SUSTANCIA ACTIVA | THE THREE
CIRCULATIONS: ACTIVE SUBSTANCE ~ 75

KEAREN POLITIKAK
POLÍTICAS DEL HUMO
SMOKE POLICIES



Hitzaldiak 2016-2017

Kearen politikak hitzaldi-programaren barruan, artista, antropologo, idazle eta arte historialarien hitzaldiak izango ditugu. Era berean, hel egite eta posesio ariketa bezala ere ulertu daitezke hitzaldiok, urtean zehar gonbidatu ezberdinetan *gorputzuko* baitdira beste hainbat filosofo, olerkari, politikari edo kimikari.

Espirituei deitzea izan da kearen erabilera hedatuenetako bat. Bere lurrunkortasun trinkoaren eta itxuraren ondorioz, oso egokia da beste mundu batzuetako izakiei *deitu* eta *harrera egiteko*. Erritu asko eta askotan erabiltzen da kea, espiritua gorputzean barrendu eta hartaz jabetzeko bitarteko gisa. Gorputz inbadituak, jabetua denean, nolabaiteko esperientzia transzendental batera daraman bidaia bat marrazten du. Tabakoa bezalako bizigarrien kontsumo arruntarako bitarteko berritzaileenetako bat bihurtu zen kearen inhalazioa garai modernoan.

Antropologiak erakusten digunez, gorputzaren jabekuntzak lotura estua du espirituen sinemenarekin, ezagutza ezberdinen eramaile gisa dei egin eta harrera egiten zaielarik. Itxura batean ez eraginkortasunik ez zentzurik ez duen eragiketa bat izango litzateke, denbora modu lineal eta homogeen bano arrazionalizatzen ez dakien mundu batean.

Aby Warburg irudien historialariak «biziraupen» terminoa erabili zuen gure kultur herentzia era askotako denboralitateen sare erraldoi gisa birdefinitzeko. Denbora historikoa geruza eta dentsitate ugaritan barreiatzen dela azpimarratu zuen bere hausnarketan. Zurrumbilo horren

barruan, harreman gurutzatu zenbaezinak gertatzen dira, iraganeko irudiak etengabe itzultzen eta berpizten direlarik. Warburgek irudien historiari heltzeko darabilen hizkeran, *indarra* eta *potentzia* hitz gakoak dira, artea bizitasunetik ulertzen duen joera batean.

Kearen politikak Olatz González Abrisketa UPVko Antropologia irakaslearekin elkarlanean egin da. Proiektuak Karl Kraus, Simone Weil, Aby Warburg, Albert Hofmann, José Martí, María Zambrano eta David Foster Wallace bertaratu nahi ditu; Asier Mendizabal, Esteban Zamora, Gema Intxausti, Xabier Arakistain, Danele Sarriugarte, Josebe Martínez eta Valentín Romaren bitartekaritzarekin.

Conferencias 2016-2017

Políticas del humo es un programa de conferencias impartidas por artistas, antropólogos, escritores e historiadores del arte. *Políticas del humo* es también un ejercicio de invocación y posesión en el que las voces de filósofos, poetas, políticos o químicos, *ocupan* los cuerpos de estos invitados a lo largo del año.

Uno de los usos más extendidos del humo ha sido el de la invocación de espíritus. Su espesa volatilidad y apariencia lo hacen idóneo para la *llamada y recepción* de seres de otros mundos. Son múltiples los ritos donde el humo es el vehículo a través del cual el espíritu penetra el cuerpo hasta poseerlo. El cuerpo invadido, al ser ocupado, traza un viaje en el que alcanza cierto tipo de experiencia trascendental. Los hábitos modernos convirtieron su inhalación en uno de los más innovadores medios para el consumo cotidiano de estimulantes como el tabaco.

La antropología constata que la posesión está íntimamente relacionada con la creencia en los espíritus, a los que se invoca y recibe como portadores de conocimiento. Una práctica en principio ineficaz y carente de sentido en un mundo que solo es capaz de racionalizar el tiempo en forma lineal y homogénea.

El historiador de las imágenes Aby Warburg hizo uso del término "supervivencia" para redefinir nuestra herencia cultural como un gigantesco entramado de temporalidades diversas. En su reflexión insistía en la diseminación del tiempo histórico en capas y densidades múltiples. Un torbellino en el que

se producen un sin fin de relaciones cruzadas y en el que las imágenes del pasado vuelven una y otra vez, resucitan. El vocabulario con el que Warburg confronta la historia de las imágenes contiene palabras claves como fuerza o potencia, en un modo de concebir el arte desde lo vital.

Políticas del Humo está realizado en colaboración con la profesora de Antropología de la Universidad del País Vasco (UPV/EHU) Olatz Gonzalez Abrisketa. Las voces *convocadas* en el proyecto incluyen a Karl Kraus, Simone Weil, Aby Warburg, Albert Hofmann, José Martí, María Zambrano o David Foster Wallace presentadas por Asier Mendizabal, Esteban Zamora, Gema Intxausti, Xabier Arakistain, Danele Sarriugar-te, Josebe Martínez y Valentín Roma.

Smoke policies is a programme of papers read by artists, anthropologists, writers and art historians. *Smoke policies* is also an exercise of invocation and possession in which the voices of philosophers, poets, politicians and chemists *occupy* the bodies of these guests throughout the year.

One of the most widespread uses of smoke has been the invocation of spirits. Its thick volatility and appearance make it ideal for the *call* and *reception* of beings from other worlds. There are many rites where smoke is the vehicle through which the spirit enters the body until it is possessed. The invaded body, as it is occupied, traces a journey in which it reaches a certain kind of transcendental experience. Modern inhalation habits became one of the most innovative means for the daily consumption of stimulants, such as snuff.

Anthropology notes that possession is closely related to the belief in spirits, which are invoked and received as carriers of knowledge. A practice that is, in principle, ineffective and meaningless in a world that is only able to rationalise time linearly and evenly.

The image historian Aby Warburg made use of the term "survival" to redefine our cultural heritage as a gigantic network of different time frames. In his reflection he insisted on the dissemination of historical time in layers and multiple densities. A whirlwind occurring in endless cross-relations and in which images of the past come back again and again, as if raised from the dead. The vocabulary with which Warburg confronts the history of images contains keywords

such as force or power in a way of conceiving art from all that is vital.

Smoke policies is organized in collaboration with the Professor of Anthropology at the University of the Basque Country (UPV/EHU), Olatz González Abrisketa. The voices *convened* in the project include Karl Kraus, Simone Weil, Aby Warburg, Albert Hofmann, José Martí, María Zambrano and David Foster Wallace presented by Asier Mendizabal, Esteban Zamora, Gema Intxausti, Xabier Arakistain, Danele Sarriugarte, Jo-sebe Martínez and Valentín Roma.

26 otsaila febrero february, 19.00, Z aretoa sala hall

Karl Kraus por I by Asier Mendizabal-en bidez

Munduaren gainbehera magia beltzagatik | El ocaso del mundo por la magia negra | The destruction of the world through black magic

Karl Krausek *Die Fackel* (Suziria) aldizkari mitikoa "Eraitsitako literatura" izeneko artikulu batekin estreinatu zuen, Vienako Griensteidl kafetegia, Europako kafetegí literario famatuarenaren itxiera ulertzeko ezinbestekoa den testu laburra hain zuzen.

Krausek emandako konferentziak beranduago bere aldizkarian argitaratzen zituen testuak ziren maiz. "Magia beltzak eragindako munduaren gainbehera" izenarekin ezagun den hitzaldi eta testuan egilearen pentsamenduan errepikatzen diren gaietako batzuk aurkitzen dira, tartean, hiri modernoak hizkuntzak galbideratzen dituen eta bere biztanleen nerbioak bizkortzen dituen narkotiko erraldoia bezala aurkezten da.

Asier Mendizabal artista da. Nazioarteko zein estatuko instituzioetan bakarkako erakusketak egin ditu, Bartzelonako MACBA; Madrileko Reina Sofía Museoa; edo Londreseko Raven Rowen, adibidez. Sao Pauloko 31 Bienalean edo ILLUminations Veneziako 54^o Bienalean hartu du parte.

◊

Karl Kraus inauguró su mítica revista *Die Fackel* (La antorcha) con un artículo titulado "La literatura demolida". Se trata de un breve ensayo que describe la clausura de un importante café literario en Europa, el café Griensteidl de Viena.

Las conferencias pronunciadas por Kraus eran con frecuencia los textos que más tarde publicaba en su revista. En la disertación conocida como "El ocaso del mundo por la magia negra", un texto en el que se encuentran algunos de los

temas que se repiten en el pensamiento del autor, la ciudad moderna se presenta como un gigantesco narcótico que pervierte las lenguas y acelera los nervios de sus pobladores.

Asier Mendizabal es artista. Ha expuesto individualmente instituciones nacionales e internacionales como el MACBA, Barcelona; el Museo Reina Sofía, Madrid; o Raven Row, Londres. Ha tomado parte en la 31 Bial de Sao Paulo o en ILLUminations, 54^a Bial de Venecia.

◊

Karl Kraus opened his celebrated magazine *Die Fackel* (The Torch) with an article entitled "Demolished Literature". In this short essay he described the closing of one of Europe's leading literary coffee houses, the Café Griensteidl in Vienna. Kraus's lectures often became the basis for the texts he later published in his magazine. In his dissertation entitled "The Destruction of the World through Black Magic", which contains several themes frequently repeated in his thinking, the modern city is presented as a giant narcotic that perverts languages and quickens the nerves of its inhabitants.

Asier Mendizabal is an artist. He has exhibited at such national and international institutions as MACBA, Barcelona; Museo Reina Sofía, Madrid; Raven Row, London. He has also been part of group exhibitions at the 31 Bial de Sao Paolo and ILLUminations, 54^a Biennale di Venezia.

17 martxo(a) marzo march, 19.00, Z aretoa sala hall

Aby Warburg por I by Gema Intxausti-ren bidez

El ritual de la serpiente | Serpent Ritual

Asko dira Aby Warburg arte historialari eta ikonologia modernoaren aitak, 1923ko apirilaren 21ean, eman zuen hitzaldi hau *Kearen Politikak* programaren baitan garatzen ari garen argu-

dioetara hurbiltzeko berebizikoa dela esatera garamatzaten arrazoiak.

Lehenik eta behin hitzaldiak batzen dituen baldintza bereziak aipatu behar dira, eszenatokia eta gerturatu zen publikoagatik batik-bat. 1923-an Warburg nahasmen maniako-depresiboak jota ingresatua zegoen Kreutzlingengo (Suitza) Bellevue klinikan. Ludwig Binswanger psikiatra eta zuzendariaren zaintzapean, bertan zeuden besteak beste Bertha Pappenheim, Vaslav Nijinsky edo Ernst Ludwig Kirchner ere. Bigarren arrazoiak hizlariak erakutsitako planteamendu berritzaileekin du zerikusia, ezezaguna zen eremu batetarako bidea egin zutela esan bait dezakegu, lehen aldiz arte historiaren eta antropologiaren ikuspuntu eta argudioak bateratuz.

Gema Intxausti artista da. Berriki *Arenzana*, *Imaz*, *Intxausti*, *Montón*, *Peral*, Tabakalera, Donostia; edo *Wilder is the Black*, La Taller, Bilbao; *Meanwhile... rapture*, Sala Rekalde, Bilbao, gisako erakusketetan erakutsi ditu bere lanak.

◇

Son varias las razones que nos llevan a afirmar que la conferencia que el historiador del arte y padre de la iconología moderna Aby Warburg impartió el 21 de abril de 1923 resulta fundamental para aproximarse a los argumentos desarrollados en *Políticas del Humo*.

La primera tendría que ver con las condiciones particulares en las que se desarrolló la conferencia: con el escenario y su público. En 1923 Warburg estaba ingresado con un trastorno maniaco-depresivo en la clínica Bellevue en Kreutzlingen (Suiza) bajo la observación del psiquiatra Ludwig Binswanger, lugar en el que también se encontraban Bertha Pappenheim,

Vaslav Nijinsky o Ernst Ludwig Kirchner. La segunda razón atiende a la originalidad de los planteamientos que Warburg desplegó en su ponencia y que permitieron el acceso a un campo de trabajo ignoto en el que por vez primera las perspectivas y lecturas de la historia del arte y de la antropología confluyen.

Gema Intxausti es artista. Recientemente ha presentado su trabajo en las muestras *Arenzana*, *Imaz*, *Intxausti*, *Montón*, *Peral*, Tabakalera, Donostia; *Wilder is the Black*, La Taller, Bilbao; o *Meanwhile... rapture*, Sala Rekalde, Bilbao.

◇

There are several reasons that lead us to state that the lecture the art historian and father of modern iconology Aby Warburg gave on 21 April 1923 is essential to examining the arguments developed in *Smoke Policies*.

The first had to do with the particular conditions under which the lecture took place: the stage and audience. In 1923, Warburg was admitted to Bellevue Clinic in Kreutzlingen (Switzerland) with a manic-depressive disorder, under observation by the psychiatrist Ludwig Binswanger. The clinic was also looking after Bertha Pappenheim, Vaslav Nijinsky and Ernst Ludwig Kirchner. The second reason has to do with the originality of the approaches Warburg used in his paper, a research that allowed access to an unknown field of work in which perspectives and readings of art history and anthropology converge for the first time.

Gema Intxausti is an artist. Her recent exhibitions include: *Arenzana*, *Imaz*, *Intxausti*, *Montón*, *Peral*, Tabakalera, Donostia - San Sebastián; *Wilder is the Black*, La Taller, Bilbao; and *Meanwhile... rapture*, Sala Rekalde, Bilbao.

28 apirila abril april , 19.00, Z aretoa sala hall
Albert Hofmann por | by Xabier Arakistain bidez

Drogak eta euforia Ernst Jüngerren obran | *Drogas y euforia en la obra de Ernst Jünger* | *Drugs and euphoria in the work of Ernst Jünger*

“Drogak eta euforia Ernst Jüngerren obran” izenburua zeukan Albert Hofmann (Baden, 1906 – Basilea, 2008) kimikari eta intelektual suitzarrak 1989ko urriaren 18an, Bilbon, Ernst Jünger (Heidelberg, 1895 – Riedlingen, 1998) filosofo, idazle eta historialari alemanaren omenezko sinposio baten barruan, eman zuen hitzaldiak. Substantzia psikotropikoak erabiliz pertzepzioak eta gogo-aldarteak aldatzea gustatzen zitzaizen bi intelektualei, kontzientziaren eta giza pentsamenduen mugak zabaltzeko helburuz. Esperientzia haiek Ernst Jüngerren obraren edukian izandako garrantzia eta garai hartako Europako filosofia eta zientzian jorratzen ari ziren gaiekin izandako lotura hartu zituen hizpide Hofmannek bere hitzaldian.

Xabier Arakistain feminista da, eta arte-komisarioa. Aitzindaria izan da sexu-berdintasunerako politikak artean, pentsamenduan eta kultura garaikidean aplikatzen eta garatzen. *Ikuspegi feministak ekoizpen artistikoetan eta artearen teoretan* ikastaroa zuzentzen du gaur egun, Bilboko Azkuna Zentroan.

◊

“Drogas y euforia en la obra de Ernst Jünger” es el título de una conferencia que el químico e intelectual de origen suizo Albert Hofmann (Baden, 1906 – Basilea, 2008) impartió en Bilbao el 18 de octubre de 1989 en el marco de un simposio-homenaje al filósofo, escritor e historiador alemán Ernst Jünger (Heidelberg, 1895 – Riedlingen, 1998). Ambos intelectuales

compartían el interés por alterar las percepciones y los estados de ánimo a través del uso de sustancias psicotrópicas con el objetivo de ensanchar los horizontes de la conciencia y el pensamiento humano. Esta conferencia insiste en la importancia de estas experiencias en la configuración de la obra de Ernst Jünger y en sus vínculos de su trabajo con los problemas que en ese momento se estaban planteando en el campo de la filosofía y la ciencia en Europa.

Xabier Arakistain es feminista y comisario de arte. En sus prácticas ha sido pionero en el desarrollo y la aplicación de políticas de igualdad entre los sexos en los ámbitos del arte, el pensamiento y la cultura contemporáneos. En la actualidad co-dirige el Curso *Perspectivas feministas en las producciones artísticas y las teorías del arte*, en Azkuna Zentroa, Bilbao.

◊

“Drugs and euphoria in the work of Ernst Jünger” is the title of a lecture the Swiss-born chemist and intellectual Albert Hofmann (Baden, 1906 – Basel, 2008) gave in Bilbao on 18 October 1989 as part of a symposium-tribute to the German philosopher, writer and historian Ernst Jünger (Heidelberg, 1895 – Riedlingen, 1998). Both intellectuals shared an interest in altering perceptions and moods through the use of psychotropic substances in order to broaden the horizons of consciousness and human thought. This lecture emphasises the importance of these experiences in shaping the work of Ernst Jünger and the way in which his work was linked with the problems arising in the field of philosophy and science in Europe at the time.

Xabier Arakistain is a feminist and art curator. In his work he has pioneered the development of the implementation of gender equality policies in the fields of art, contemporary

thought and culture. He currently co-directs the course on *Feminist Perspectives in artistic productions and theories of art* at Azkuna Zentroa, Bilbao.

26 maiatzak mayo may, 19.00, Z aretoa sala hall
David Foster Wallace por | by Danele Sarriugarte bidez
Zer da ura? | ¿Qué es el agua? | *What is water?*

David Foster Wallacek (Ithaca, NY, 1962 – Claremont, 2008) alegia batekin hasi zuen Kenyon Collegeko (AEB) graduondoko ikasleen aurrean eman zuen “*Zer da ura?*” izeneko hitzaldia: bi arrain ageri dira bertan; arrain zaharrago batek «Nola dago ura?» galdetzen dienean, *ura* izeneko substantzia bat existitzen dela konturatzen dira bat-batean. Interbentzio honetan, Sarriugartek oharrak egingo dizkio Wallaceren ponentziari. Oin-oharren erabilera da Wallaceren bereizgarrietako bat.

Danele Sarriugarte idazle eta itzultzailea da. *Erraiak* (Elkar) eleberria argitaratu zuen 2014an. Euskarazko zenbait hedabidetan kolaboratzen du, literatur kritikari, artikulugile eta zutabegile gisa.
◇

David Foster Wallace (Ithaca, NY, 1962 – Claremont, 2008) inicia la conferencia “¿Qué es el agua?”, pronunciada frente a los alumnos graduados del Kenyon College (EEUU) con una fábula protagonizada por dos peces que repentinamente se dan cuenta de la existencia de una sustancia llamada agua cuando otro pez más viejo les lanza la pregunta: ¿Cómo está el agua?. Esta intervención consiste en *anotar* la ponencia de Wallace, un escritor cuya producción se caracteriza por sus *notas al pie*.

Danele Sarriugarte es escritora y traductora. En el año 2014 publicó la novela *Erraiak* (Elkar). Colabora con varios medios de comunicación en euskera como crítica literaria, articulista y columnista.
◇

David Foster Wallace (Ithaca, NY, 1962 – Claremont, 2008) opened the paper titled “What is water?”, read to the graduate students of Kenyon College (USA) with a tale of two fishes that suddenly realise the existence of a substance called water when another older fish asks the question: *How is the water?* This intervention consists of *annotating* the paper read by Wallace, a writer whose production is characterised by its footnotes.

Danele Sarriugarte is a writer and translator. In 2014 she published the novel *Erraiak* (Elkar). She collaborates with various media in Basque as a literary critic, contributor and columnist.

30 ekaina junio june, 19.00, Z aretoa sala hall
María Zambrano por | by Valentín Roma bidez
Ametsak eta literatur sorkuntza | *Los sueños y la creación literaria* | *Dreams and literary creation*

María Zambrano (Vélez-Málaga, 1904 – Madril, 1991) filosofo eta idazlearen pentsamendua behin eta berriro aipatu izan da hiru nostalgia-moldetatik: gerra zibilak eta erbesteak garaiko intelektual garrantzitsuenetako batzuentzat izandako ondorioengatikoa nostalgia politikotik; tradizioa eta etorkizuna laburbilduko zituen eskola hertsiki espainiar baten nostalgia filosofikotik; espiritualtasunerantz joaz zehaztasuna baztertzen ez duen eta sakratua dena izendatu nahian zorrotza izateari uko egiten ez dion lengoia baten nostalgia poetikotik.

María Zambrano hirukote horretatik ateratzen dugunean, baina, gurari mistikoetako filosofo nietzschetar bat baino zerbait beharrezkoagoa aurkitzen dugu: haren artearen teoriarian eta munduaren hermeneutikan hitzen beste erabilera batzuk marrazten dira, aldi berean alienazioaren aurrean harrapaezin bihurtzeko erak, hautemanezin edo intsumiso bilakatzeko moldeak diren esateko moduak.

Valentín Roma artearen historialari, idazle eta erakusketen komisarioa da. Artearen Historiako eta Filosofiako doktorea Southampton Universitytik (Winchester School of Art). Arte Teoría Garaikideen irakaslea da gaur egun UABen, eta Bartzelonako ELISAVA eskolako irakasle titularra. *Rostros* (Periférica) liburua argitaratu zuen 2011n.

◊

El pensamiento de la filósofa y escritora María Zambrano (Vélez-Málaga, 1904 – Madrid, 1991) ha sido persistentemente invocado desde tres formas de nostalgia: nostalgia política por los efectos que tuvo la guerra civil y el exilio para algunos de los más importantes intelectuales del momento; nostalgia filosófica de una escuela estrictamente española que recapitulase la tradición y el futuro; nostalgia poética de un lenguaje que yendo hacia la espiritualidad no excluye la precisión, que tratando de nombrar lo sagrado no evita ser punzante.

Sin embargo, cuando extraemos el pensamiento de María Zambrano de este triple círculo hallamos algo más necesario que una filósofa nietzscheana con veleidades místicas: en su teoría del arte y en su hermenéutica del mundo están dibujándose otros usos para la palabra, formas de decir que son, al mismo tiempo, maneras de hacernos inapresables contra la alienación, modos de convertirnos en indetectables o en insumisos.

Valentín Roma es historiador del arte, escritor y comisario de exposiciones. Doctor en Historia del Arte y Filosofía por la Southampton University (Winchester School of Art). Actualmente es profesor de Teorías Artísticas Contemporáneas en la UAB y profesor titular en la Escuela ELISAVA de Barcelona. En 2011 publicó el libro *Rostros* (Periférica)

◊

The thought of the philosopher and writer María Zambrano (Vélez-Málaga, 1904 – Madrid, 1991) has been persistently cited from three forms of nostalgia: political nostalgia for the effects of the civil war and exile for some of the most important intellectuals of the day; nostalgia for a strictly Spanish school of philosophy that recapitulates tradition and the future; poetic nostalgia for a language which, on its way to spirituality, does not exclude precision, remaining caustic while trying to name the sacred.

However, when we extract the thought of María Zambrano from this triple circle we find something more necessary than a Nietzschean philosopher with mystical inclinations: her theory of art and her hermeneutics of the world outline other uses for the word, forms of expression that are also ways to free us from alienation, ways of becoming undetectable or rebellious.

Valentín Roma is an art historian, writer and curator. Doctor in History of Art and Philosophy at Southampton University (Winchester School of Art), he is currently Professor of Contemporary Artistic Theories at UAB and Professor at the ELISAVA School of Barcelona. In 2011 he published the book *Rostros* (Periférica)

27 urria octubre october, 19.00, Z aretoa sala hall
Simone Weil por | by Esteban Zamora bidez
Arrazionalizazioa | La racionalización | Rationalisation

Hau izan zen Simone Weilek (Paris, 1909 – Ashford, 1943) bere bizitzan eman zuen hitzaldi bakarra, 1937ko otsailaren 23an, langileez osatutako publiko baten aurrean. Hain berezkoa duen sentsibilitatearekin, langilearen gorputza tresna izatera murrizten duen arrazionalizazio-prozesuaren gorabeherak aztertzen ditu pentsalariak hitzaldi honetan, eta prozesu horretan lortutako produktuak aldeberean, bere atsekabea munduan zehar zabaldu besterik egiten ez duen makina batentzako erregaiak baino ez direla azaltzen du. Weilek ez du termino soilik ekonomikoetan aztertu nahi langileei jasanarazten zaiei zapalkuntza, eta honela dio bere testuan: «Langileek ez dute ordainsari murriztegarik sufritzen bakarrik. Egungo gizartean maila apalago batera baztertuta daudelako ere sufritzen dute, morrontza moduko batera murriztuak daudelako».

Esteban Zamora Godoy filosofiako irakasle gisa lizentziatua Santiago de Txileko UMCE Hezkuntza Zientzien Unibertsitate Metropolitanarean, Filosofian lizentziaduna da, Txileko ARCIS unibertsitatetik, eta Filosofian doktorea, Bartzelonako Unibertsitatetik (UB). *VÍSCERA* aldizkaria zuzentzen du, eta Donostiako Kaxilda gune/proiektuko kide da.

◊

Esta es la única conferencia que Simone Weil (París, 1909 – Ashford, 1943) imparte en vida, el 23 de febrero de 1937, frente a un público compuesto de obreros. La pensadora analiza en esta conferencia, con esa sensibilidad que la hace tan particular, las vicisitudes de un proceso de racionalización en el que mientras el cuerpo del trabajador

es reducido a la condición de herramienta, los productos obtenidos en el proceso son a su vez combustibles para una máquina que no para de expandir su insatisfacción por la faz de la tierra. Weil se niega a concebir la opresión que se ejerce sobre los obreros solamente en términos económicos y afirma en su texto: “El obrero no sufre solo por la insuficiencia de la paga. Sufre porque está relegado por la sociedad actual a un rango inferior, por qué está reducido a una especie de servidumbre”.

Esteban Zamora Godoy Titulado como profesor de filosofía en la Universidad Metropolitana de Ciencias de la Educación UMCE Santiago de Chile, licenciado en Filosofía por la Universidad ARCIS de Chile y Doctor en Filosofía por la Universidad de Barcelona (UB). Edita la revista *VÍSCERA* y forma parte del espacio / proyecto Kaxilda localizado en Donostia-San Sebastián.

◊

This is the only talk Simone Weil (Paris, 1909 – Ashford, 1943) gave in life, on 23 February 1937 to a public made up of workers. With her typical sensitivity, the thinker discussed the vicissitudes of a rationalisation process in which while the worker’s body is reduced to the status of tool, the products obtained in the process are fuel for a machine that continues to expand its dissatisfaction across the face of the earth. Weil refuses to conceive the oppression exerted on workers only in economic terms and states in her text: “The worker suffers not only from inadequate pay. He suffers because he is overshadowed by today’s society to a lower rank, because he is reduced to a form of servitude.”

Esteban Zamora Godoy graduate Philosophy professor at the Metropolitan University of Educational Sciences UMCE Santiago holds a degree in Philosophy from the ARCIS University

of Chile and a Doctorate in Philosophy from the University of Barcelona (UB). He publishes the magazine *VÍSCERA* and is part of the Kaxilda space/project located in Donostia-San Sebastián.

24 azaroa noviembre november, 19.00, Z aretoa sala hall
José Martí por | by Josebe Martínez bidez
*Montecristiko manifestua | Manifiesto de Montecristi |
Montecristi Manifesto*

José Martí (Habana, 1853- Dos Ríos, 1895) olerkari, pent-salari eta Kubako Alderdi Iraultzaileko sortzaileak idatzituen “Montecristiko manifestua” (1895ko martxoaren 25a) Espainiarekiko mendekotasunaren aurka eta Kubaren independentziaren aldeko gerra (1895-1898) piztuko zuen aldarrikapena izan zen. Kubako herriari espainiar gobernuaren aurka altxatzeko deia egiten du manifestuak, bere horretan dirauen ordena koloniala salatu, eta gogo nazionala eta mestizajea aldarrikatzen ditu.

Josebe Martínez Hispano-amerikar Literaturako irakasle titularra da EHUn. Espainiar Literaturako eta Literatur Kritikako irakasle titularra izan da Kaliforniako Unibertsitatean. Literatur kritikako ikastaroak eman ditu Mexikoko El Colegioko Emakume Ikasketen Diziplinarteko Programan; Miami Unibertsitatean, eta San Diegoko Unibertsitatean. Azken horretan egin zuen Hispaniar Literaturako doktoretza.
◊

“El Manifiesto de Montecristi” (25 de marzo de 1895) es la proclama del poeta, pensador y fundador del Partido Revolucionario Cubano José Martí (La Habana, 1853- Dos Ríos 1895) que supone la declaración de la guerra de independencia de Cuba contra el dominio de España (1895-1898).


El manifiesto representa igualmente una llamada al levantamiento de la población cubana contra el gobierno español, la denuncia de la persistencia del orden colonial, y la apelación a la voluntad nacional y al mestizaje.

Josebe Martínez es profesora titular de Literatura Hispano Americana en la Universidad del País Vasco. Ha sido profesora titular de Literatura Española y Crítica Literaria en la Universidad de California. Ha impartido cursos de crítica literaria en el Programa interdisciplinario de estudios de la mujer de El Colegio de México; en la Universidad de Miami, y en la Universidad de San Diego, donde ser doctoró en Literatura Hispánica.
◊

The “Montecristi Manifesto” (25 March 25 1895) is the proclamation of the poet, thinker and founder of the Cuban Revolutionary Party, José Martí (Havana, 1853 - Dos Ríos, 1895). It is the declaration of the war of independence of Cuba against Spain (1895-1898). The manifesto also represents a call for the uprising of the Cuban population against the Spanish government, denouncing the persistence of the colonial order and appealing to the national will and for miscegenation.

Josebe Martínez is Professor of Hispanic-American Literature at the University of the Basque Country. He has been Professor of Spanish Literature and Literary Criticism at the University of California. He has taught literary criticism on the Interdisciplinary Programme of Women’s Studies at El Colegio de México; at the University of Miami and the University of San Diego, where he received his doctorate in Hispanic Literature.

CAFÉ COMPLIT



Topaketa

Apirilak 21-22a

XVI. mendean Europara iritsi zenetik, ohitura eta adikzioa baino zerbait gehiago izan da kafearen kontsumoa: hainbat erritual sozial bereziri eta esanguratsuri bide eman eta berariazko gune publikoen sorrera ekarri du, non mugimendu politiko eta kultural garrantzitsuak erne diren. Café Complotek kafeari buruzko hausnarketa kolektibo bat proposatzen du bi norabide nagusitan: batetik, sustantzia bizigarri gisa, zeina nahiz eta lan errendimendua areagotzeko erabiltzen den, sarri lan denborari saihets egiteko ere balio baitu, jendetasun patxadatsurako eta nor bere baitara modu kreatiboan biltzeko aukera ematen duten espazioak sorraraziz, non kapitalismoaren dinamika esplotatzaileak kontrapisatu eta aldi berean iraultzen diren. Bestetik, “Kafetxea”, “esparru publikoa” delakoaren ernamuin gisa pentsatu nahi da. XVIII. mendean aristokraziarekiko bere programa askatzailea eta demokratizatzailea kafetxeetan apailatu zuen burgesia errebelaren topaleku zena, eta, ondoren, Europako hiriburu handietan, jada XIX. eta XX. mendeetan modernitatearen ideologiek eta literatura zein arte korranteek hartuko zituzten norabideak finkatuko zituzten aliantzak eta antagonismoak taxutu ziren tenplu bilakatuko zirenak.

Ignacio Echevarría.
Filologoa, editorea eta literatur kritikoa.

Encuentro

21-22 de abril

Desde su introducción en Europa, en el siglo XVI, el consumo del café ha constituido algo más que una costumbre y una adicción: ha dado lugar a una peculiar y significativa serie de rituales sociales y a la creación de específicos locales públicos en los que han germinado importantes movimientos políticos y culturales. *Café Complot* propone una reflexión coral sobre el café en dos direcciones fundamentales: por una parte, como sustancia cuyo efecto estimulante, si bien suele emplearse como medio de incrementar el rendimiento productivo, a menudo sirve también para sustraerse al tiempo del trabajo, propiciando burbujas de sociabilidad distendida y de ensimismamiento creativo que contrapesan y a la vez subvierten las explotadoras dinámicas del capitalismo. Por otra parte, se trata de pensar «el Café» como ámbito embrionario de la llamada «esfera pública», lugar de encuentro, en el siglo XVIII, de una burguesía contestataria que en los cafés urdió su programa emancipador y democratizador respecto a la aristocracia, y que más adelante se sirvió de ellos como capillas en las que se fraguaron las alianzas y los antagonismos que, ya en los siglos XIX y XX, y en las grandes capitales europeas, señalaron los rumbos en que habían de evolucionar las ideologías y las corrientes literarias y artísticas de la modernidad.

Ignacio Echevarría.
Filólogo, editor y crítico literario.

Meeting 21-22 April

Since its introduction in Europe in the sixteenth century, coffee consumption has become more than just a habit and addiction; it has led to a peculiar and significant number of social rituals and the creation of specific public places where important political and cultural movements have germinated. *Café Complot* proposes a multiple-voiced reflection on coffee in two main directions: on the one hand, as a substance whose stimulating effect, although often used as a means of increasing production, also serves to escape from work, providing moments of relaxation and sociability and creative reverie, counterbalancing and simultaneously subverting the dynamics of capitalist exploitation. Moreover, it is a question of conceiving “the Café” as an embryonic area of the so-called ‘public sphere’, meeting place in the eighteenth century of a rebellious bourgeoisie that used cafes to weave their emancipatory and democratising programme with respect to the aristocracy. Later, they used them as chapels to forge the alliances and oppositions which, in the major European capitals in the nineteenth and twentieth centuries, set the course for the ideologies and literary and artistic currents of modernity.

Ignacio Echevarría.
Philologist, editor and literary critic.

21 apirila abril april, 18.00–21.00, Z aretoa sala hall
